

egunekoa

Kepa Manzisidor

(Udalbiltzako Batzorde Eragileko kidea eta Mundakako zinegotzia)

Tortura, legezko bermearen urraketa sistematikoa

Nazioarteko legediak oso argi adierazten du tortura kontzeptua: edozein pertsonarengan, borondatez, min edo sufrimendu fisiko edota mental larriak sorrarazten dituen edozein ekintza, honen helburua haue-tako bat izanik: sufritzen duenarengandik edo hirugarren batengandik informazioa edo aitorten bat lortzea; egingako, edo ustez egindako zerbaitengatik zigortzea; edo pertsona hori edo beste batzuk izutzea. Min edo sufrimendu horien egilea funtzionario publikoa denean edo funtzio publikoetan aritzen denean, bai eta bere baimenarekin beste pertsonaren batek eragiten duenean. (1987. urtetik aurrera indarrean dagoen Tortura eta beste zigor edo tratatu txar, anker eta lotsarazleen kontrako Konbentzioa)

Baina iraganean horren urrun joan gabe, 2000. urteko abenduan, Nizan ospatutako Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Kartak torturaren debekua jasotzen du. Bere laugarren artikuluan honako hau agertzen zaigularik: «ezin daiteke inor torturatu, ezta inori zigor edo tratatu txar, anker eta lotsarazlerik eman ere»; definizio hau, 1948an onartutako Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean oinarritua izanik.

Horren ondorioz, Europar Batasuneko estatuak Karta honetan jasotzen diren eskubide, askatasun eta printzipioak onartzen dituzte. Hitzaurrean agertzen denaren arabera, eskubide hauen

gozamenak, erantzukizunak eta bete-beharrak sortzen ditu bai sinatzaile diren Estatuengan nola gizaki ororengan.

Beraz, honen arabera Estatu Espainola ere, Europar Batasuneko kidea eta goian aipatutako Konbentzioaren sinatzaile izaki, torturaren kontrako printzipio orokorraren bermatzaile izan beharko litzateke.

Tamalez, legeak eta errealitateak askotan ez dute bat egiten. Aipatu bezala, Espainian tortura debekatzen duten bete-beharrezko arauak egon badaude. Horrela izanda ere, datu ugari ondorio berera garamatza: Estatu segurtasun indarrek, tortura tresna politiko gisa erabiltzen dutela, eta Estatuak praktika hori eragozteko inolako borondaterik ez duela.

Iritzi horren lekuko, 2002.eko martxoan ospatu zen Nazio Batuetako Giza Eskubideen 58. Batzordean, Errelatore Berezia den Theo Van Boven holandarrak, Europar Batasuneko lehendakartza daukan Estatu Espainolean izandako 124 tortura kasu jaso zituen bere txostenean, horietatik 58 euskal hiritarrenak. Estatu espainolean, orokorrean, etorkinen salaketak dira. Euskal herritarrek pairatutakoak, aldiz, Euskal Herrian bizi dugun gatazka politikoarekin zuzenean daude lotuta. Torturaren praktikak, tresna politiko den neurrian, bere horretan jarraituko du, esan

bezala, Estatuak amaitzeko inolako borondate politikorik ez duelako. Horren adibide, tortura zigor beldurrik gabe praktikatzeko onartutako legeak, salaketan aurrean jartzen diren oztopoak eta behin errudunak zigortu ondoren ematen diren indultuak.

Bere garaian, Udalbiltzak, Torturaren Aurkako Taldeak proposatutako bederatzi puntuekin bat egin zuen. Era berean, talde honek ekainaren 8an antolatutako eta oihartzun sozial zabala izan zuen torturaren kontrako manifestazioa sostengatu genuen. Baina tamalez, gaur ere, Nazioarteko Torturaren Aurkako Eguna ospatzen den honetan burura ekarri behar dugu tortura errealitate bat dela

ALDAKETARIK EZ

Nazioarteko Torturaren Aurkako eguna ospatzen den honetan burura ekarri behar dugu tortura errealitate bat dela

tutako eta oihartzun sozial zabala izan zuen torturaren kontrako manifestazioa sostengatu genuen. Baina tamalez, gaur ere, Nazioarteko Torturaren Aurkako Eguna ospatzen den honetan burura ekarri behar dugu tortura errealitate bat jarraitzen duela izaten Euskal Herrian.

Hau dela eta, aipatutako proposamena ezinbestekotzat hartu ondoren, Udalbiltzak urrunago joateko beharra ikusten du, benetan uste baitugu soilik euskaldun guztion eskubideak bermatuz, lortuko dugula benetako justizian oinarritutako bake iraunkorra ekartzea gure herrira.

Udalbiltzak, Miarritzen ospatutako azkeneko Asanblada Orokorrean argi

(Hurrengo orrialdean jarraitzen du)

zutabea

Bixente Serrano Izko



Errukiarren?

Susmoa dut berriro ere pixontzitik at eginen dudala txiza-legea. Barka iezadazue, adituok, baina aitortu behar dut artetga jartzen nauela «euskal hizkuntz komunitate» kontzeptuak. Oraindik oroitzen naiz, errate bateko, urte gutxi dela Iruñeko Arga ibaiaren ertzetan euskararen alde antolatu zen eszenifikazio batez, herri ekimen baten amaiera jai-giroan ospatzen: agiri bana irakurri zuten «euskal hizkuntz komunitateko» kide batek eta «erdalduneko» bertze batek. Ba, izen handiko batek gutxienez, bigarren «komunitate» honetako kidearen planta egiteko aurreko egunetan eskaintza jaso zuenak, uko egin zion horrelako «ohoreari». Solidaritate falta?

Amaren titietatik esnea euskaraz xurgatu ez, baina gero, bai, giharrak euskaraz sendotu ditugunok, noiz hasi ginen «euskal hizkuntz komunitateko» kide izaten? Euskararekiko nola-baiteko interesa piztu zitzaigunean? Euskaraz ikastea erabakitzean? Euskaraz egiten hasi ginenen? Baina bertze galdera hau dut funtsezkoena: ba ote dago «euskal hizkuntz komunitaterik»? Sinetsiago nago, gure artean bi hizkuntz komunitatez mintzatzen bagara, bi komunitate erdaldun bereizi beharko genituzkeela: gaztelaradun eta euskalduna den komunitate elebiduna, batetik; eta frankofono eta euskalduna den bertze komunitate elebiduna, bertzetik; eta bietan, jakina, bakoitzari dagokion erdarazko elebazarrekoak nagusi, euskaldunok, aldiz, gutxiago eta elebidun garelarik. Herri batez ari bagara, ez ote dagokio hobe «komunitate» kontzeptua gizarteari, hiltune baino?

Nora eramaten gaitu «euskal hizkuntz komunitatearen» fikzio horrek? Solidaritate filantropikoa eskatzera «erdal hizkuntz komunitatekoei», gure herrikide izanen ez bailiran ikusten bide ditugun horiei? Nola bultzatuko dugu hauek edo euren seme-alabek euskaraz ikas dezaten? Euskaldunokiko errukiarren —Sanzek nahi bezala—, ala euskara Euskal Herriko tokian tokiko komunitate bakarreko kide guztion ondare eta eskubidea dela ikusarazten?

seiko urrea

Iñaki Lasa



Erantzukizunak

Lerro hauek idazten dituen honek txakurrak maite ditu. Maitasun guztiekin gertatzen denaren antzera, zaila da azaltzea zergatik baina, ezin dut ebitatu, lau hankako izaki iletuekin jolas egitea hartzen dudana lasaigarririk handiena da. Agian horregatik, duela 7 urte erreskaterako txakurrak prestatzen hasi nintzen. Harrezkero, hara eta hona ibili gara galdutako jendearen bila, hondakinen artean lurperatutakoa edo elurak estalitakoa. Zeregin polita da, erlojuaren kontrakoa eta biziaren aldekoa, une zoragarriak eta oso hunkigarriak di-tuena, benetan gustura egiten dugu zerbitzu hau.

Hala eta guztiz ere, maite duten

norbait galdu duten familiarrak ikusten ditudan bakoitzean ezin izaten dut ebitatu haien aldean jartzea eta ego-nezina sentitzea. Kezkaturik, zinez larriturik, gertatutakoa kontatzen dute kontakizunaren zehaztapenetan maite duten pertsona buelta liezaikkeen gakoa egongo balitz bezala. Negarrari ezin eutsiz txakurrei begiratzen diete eta itxaropen berriak eskuratzen dituzte. Txakurrek ulertuko balute lasai egoteko esango liekete, dudarik gabe, baina ez dira animaliak besterik. 7 urte hauetan maiz ikusi ditut larritasunak desitxuratutako aurpegiak, tragediak ikusi ditut, oinazea ikusi dut.

Hori dela eta, agian, gizakiak egingako hutsengatik sortutako tragedien

aurrean haserre berezia sentitzen dut. Gaizki eraikitako etxebizitzak, leku desegokian ezarritako kanpinak edota alde zuzenetik egindako txostenei jaramonik egin ez eta eraikitako urtegi erraldoiak arduragabekeria galantak iruditzen zaizkit. Itxura guztien arabera Itoizko urtegia urez betetzen hasiko dira nahiz eta arriskuaren berri baduten. Burugogorkeria eta interes ekonomikoek zuhurtzia garaitu dute berriro ere. Milaka pertsonen ziurtasuna ez da ezer irabaz daitekeen diruarekin alderatuz ez eta garaile sentitzearen poza eta plazerrarekin alderatuz ere. Baina, zoritxarrez, iragarritakoa betetzen bada, zoritxarrez urak eta lohiak milaka pertsona aurretik eramaten baditu erantzukizunak eskatu beharko ditugu, gaurdanik ezagutu behar dugu zein den erantzulea «naturaren aurreikusitako ezinezko neurririk gabeko erasoan» ezkuta ez daitezen, Biescasen gertatu bezala.

kornerra

Mikel Elorza

Erromatarra

Zaharren jakituria eta zentzunarekin lotuta ageri zaigu, esplikatu digute, Erromako Senatua. Harena *auctoritas* zen, kontsulen *potestas*-aren aitzia. Ezagutzen oinarritutako autoridadea botere hutsaren kontra. Senatua zen agintarien gehiegikeriei aurre egin ziezaiekena (eta Erromako Legioak, esan gabe doa). Hura guztia seguruarekin erabat aldrebestuta eta Hollywoodeko gidolarien bitartez kontatu digutela alde batera utzita, horixe gelditzen zaio, gelditzekotan, Espainiakoari jatorrizkoarekin antza eduki lezakeena: izena. *Auctoritas*-en berri ez daukagu aspaldi; *potestas* bakarrik ageri zaigu. Fuerte ageri ere. Senatua bere morroi zintzoa da eta orain ere erabakiak Legioaren bidez (eta *Benemerita*-z, *c'est la meme chose*) ezartzen ditu. Atzo Espainiako Senatuak oso erabaki erromatarra hartu du: *pax* deitzen dioten hori ezartzeko ezin zuzenagoa.

kornerra@egunkaria.com